


## HUHEZIk emango ditu aurten ere administrazioko testugintza lantzeko ikastaroak

2007/10/01

2007-2008 ikasturtean ere HUHEZIk emango ditu administrazioko testugintza lantzeko ikastaroak, IVAPek eskatuta, **Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak**.

Ikastaroan **14 talde presentzial** izango dira, launa talde hiriburuetan (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) eta bana Durangon eta Bermeon. Beste **bi talde, berriz, on line** antolatuko dira. On line ikastaroetarako HUHEZIk erabiliko du Moodle plataforma.

### Moodle

Moodle  da plataforma bat **software librean** egina, eta laguntzen du **ikaskuntza prozesuak kudeatzen**. Egina dago, gainera, pedagogia irizpideak aintzat hartuta, hezitzaileak gai izan daitezen sortzeko ikaskuntza komunitate eraginkorrak online.

Komunitate zabal bat eratu da nazioartean Moodlen inguruan. Plataforma bera **75 hizkuntzatan** erabil daiteke, tartean euskaraz, eta **160 herrialdetan** erabiltzen da. Moodle oso ondo uztartzen da Mendeberrin, Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza proiektuan.



---

**HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA**

---